

BALOREZKO PROPOSAMENA



Oier Arano, Ibai Ferradas, Garikoitz Garmendia eta Guzman Martinek osatzen dugu Chiteki Motors taldea. Auto elektriko seguru bat sortuko dugu gure enpresan, eta hainbat ezaugarri edukiko ditu. Auto modernoa eta **berritzailea** izango da, hainbat sensorerekin segurtasuna bermatzeko. Gainera ahalik eta ingurunearekiko garbiena izateko eguzki plaka bat izango du. Horrela istripu asko ekidiko lirateke eta baita ingurunea zaindu ere.

Bezereok gure produktua kontsumituz gero, **lana erraztuko** zaie. Lana gidatzerako orduan baina baita energiaren erabilera arduratsua egiten ere; izan ere, gutxiago kutsatuko lukete, autoa energia berreiztagarrietan oinarritzen delako, eta ahalik eta efizienteena delako. Horretaz gain seguruago sentituko dira errepidean, gure autoa ahalik eta seguruena izateko prestatua baitago, hainbat sensorerekin. Hau guztia gutxi balitz, esperientzia eroso izango dute gidatzerakoan.

Gaur egun merkatuan badaude auto elektrikoak, baina hala ere, ez dago punta-puntako teknologia erabiltzen duten auto askorik. Auto adimentsuak oso berriak dira, eta gureak ahalegin berezi bat egingo du kutsadura murrizteko. Izan ere, gaur egungo auto elektrikoek



gasik isuri ez arren, energia asko erabiltzen dute. Horregatik du gure autoak eguzki plaka, ahalik eta autonomoena izateko. Gainera teknologia berri asko implementatuko ditu, haizetakoko pantaila adibidez. Gure produktua benetan **berritzailea** izango da, gure ustez horrelako teknologiak etengabe aldatzen, berritzen eta hobetzen joan behar direlako ahalik eta esperientzia erosoan, seguru eta ingurunearekin errespetuzkoena izan dadin.

Arriskua murriztea gure helburuetako bat da. Autoak dituen sentsoreekin istripuak sahiestuko ditugu, gehiago abiadura ezarrita eta bakoitza bere bidetik joaten den sentsoreak aplikatuz. Gainera, kutsadura zainduko dugu auto elektriko delako. Honek munduaren egoera gehiago ez larritzen lagunduko du. Horretaz gain, besteen segurtasunean begiratzeaz gain, jabearen segurtasunean ere begiratzen dugu, lapurreta kasuak murrizteko sistemak edukitzen, adibidez hatz marka bidez irekitzea autoa.

Diseinuari dagokionez, autoen merkaturak zorrozki aldatuko dugu. Ez da gure lehiakideak bezain arrunta izango oso berritzailea delako, hau da, originala eta ez-ohikoa izango da (inoiz ikusi ez den produktu bat izango da). Honen ondorioz, oso deigarria eta erakargarria izango da gustu ezberdineko bezero guztien beharrak asetzeko.

Honen guztiaren gainetik gure produktua **erabilerraza** izango da, sortuko dugun autoaren funtzionamendua metodo berrietan oinarrituko baita. Adibidez, autoa zure hatz-aztarnarekin irekitzeko gai izango zara, eta behin barruan, pasahitza idaztearekin nahikoa izango duzu autoa martxan jartzeko. Gainera inplementatuta dituen GPS-ak eta pilotu automatikoak zure ibilbidea erreztuko dute, deskantsatzeko momentuak ahalbideratuz. Beraz, gure autoak **prestazio** asko ere izango ditu.

Gure produktuaren beste abantaila bat **personalizazioa** izango da. Gure autoa erosteko orduan hainbat ezaugarri aukeratzeko gai izango da bezeroa, hala nola kolorea. Horretaz gain, autoaren jabea edozein momentuan barruko argien kolorea aldatzeko gai izango da aplikazioaren edota autoaren menuaren bitartez.

Modu honetan lortu nahi dugu merkatu automobilistikoa eraldatzea, energia berriztagarrien eta teknologia berrien alde apustu eginez. Horrela lortuko dugu istripuak eta kutsadura murriztea, eta gizarteari onura handia ekartzea.